

## Aste Santua

*Zeruko Argia*, 686. zk., 1976-05-02: 4.

Zorionez, ba dira santuak diren asteak ere.

Eta ez ditut bakanka etortzen diren aste hoiek zoriontsuak direlako bereizten, itxaropentsuak direlako baino.

Amets-arnas hau, behar.

Ez dut maizegi egiten, baina noiz-behinka, eta Aste Santuan bereziki, Itun Berria-ri begiralditxo bat botatzen diot. Olabide zenaren eta nere erritar maite dutan Aita Etxeberria-ren itz-bideetatik Golgota gora Kristo-ren neke-bide-irakaspenak sumatzen ahalegintzen naiz.

Eta orduko periodistak ain ziren mami-giartsuak, irudimenez jantzi behar ditugu.

Arrigarriena da, ez ditugula itz berak inoiz argi beraz jazten. Nerez konturatu naiz, argi hau bakoitzak jartzen duela, eta aintzinako gertaera jakingarriak berrirakurtzean, kuxe bertan dugun edo falta zaigun argiaren bidez egiten zaizkigula aldakor.

Honela gertatzen da neretzat behintzat.

Joan den Aste Santu hau zer argitan ikusi dutan, esan nahi dut; behar dut esan; ni ere periodista bait naiz.

Eta, noski, halo-kurpilarik buruan ez duen gaurko periodista soil bat.

\* \* \*

Lehenengo Aste Santua (orijinala) santua zela ez zen orduko jendea ondo oartzten. Lukax, Markox, Jon eta Mateo-ren kronikak irakurri besterik ez dugu hau hala dela ikusteko. Bertegi zeuden oraindik, noski. Sumatzen zuten, bai, aundia zen Zerbaiten susmur bat; ba zuten, gainera, Itun Zaharrear ilunpean geratutako itz aundi asko igarribide; hala eta guztiz ere, oraindik kezka; Pedro eta Tomas-ek aitortu zituztenak lekuko.

Gizon xumea orduan ere halaxe bait zen.

Kurpilak gero jetxi zitzaizkioten zerutik.

Kristo pixtu zenean.

\* \* \*

Baina orduan ere, pixtu aurretik hil egin behar zen.

Hil behar hau ez zaigu gustatzen, baina hemen dago Asiera guzia.

Tipul-aziak frutua emango badu, lurpean hil-usteldu behar du lehen.

Hila, santuak ez diren asteetan ere ba dugu franko. Gehiegi. Guda guzietan akatzen diren denak sobra bait dira. Aurtengo gure Aste Santuan izan dugu gorrotoak preso jarritakoen iges-galdua: kalbario, eriotz eta guzti; izan dugu iluna izan den eriotza bat ere; eta zer nahi duzute, inoxentea ni, ba nuen Berpizkunde Eguna-ren itxaropena.

Baina, zai nagoela: ezetz, elkar itxaropendu genuen berpizkunderik ez dela aurten gertatuko.

Kristo Golgota bidean edo gurutzean josita geratu izan balitz bezala.

\* \* \*

Eta lehengoak ahaztu gabe gaur bizi geranez, lehen periodista haiek esandakoez ikusi dut gaurko Pilatos eskuak garbitzen; Kristo-ri bereak ematen; gurutze jartzailea ugari santuarenak egiten, eta Zirineo gutxi.

Garezurmendi-ko bidea gaur ere luzea da.

Galdetu diet Lukax-i, Markox-i, Jon-i, Mateo-ri, ia Kristo zenbat aldiz erori zen.

Ez dirate erantzun.

\* \* \*

Gero, iltzeak, banan-bana; saietseko lantza-sistada hura (lantza-dunak emana, noski) eta ozpina ahoan jarri eta:

"Jetxi adi, gauza ba aiz!"

Eriotzean dagoenaren ama, gaurko asko bezala, han larri-begira.

Eta lur-ikara aundi bat.

"Ba zekien zer gertatuko zitzaion", errukiz beterik leiotik begira dauden batzuk, "zergatik esan behar zituen esan dituenak!"...

\* \* \*

Eta, gero, berpiztekoak.

Berpiztu?, bai zera!

Hala ere, Lukax-ek erantziak lurrean ikus bezain laixter hor dio: "Ez dago hemen (hil-obian), piztu da!"...

Markox-ek ez ditu zapiak aitatzen; Jon-ek esaten du, berriz, Kepa-k miesak lurrean ikusi dituela; eta Mateo, ixilik.

Gorputza, falta da!

Baina oraindik ba dira kezkak, norbaitek bizkarrean eraman ote duen-edo.

Betikoak.

Eta hor dio Lukax-ek: "Jauna zinez berpiztu da, eta Simon-i agertu zaio"; Jon-ek: "Jesu etorri da erdian jarri zitzaien esanaz: 'Gentza zuei'"; eta Mateo-k bir-esaten: "'Ta ara! Neu zuekin nago aldi-amairaino'".

Itzik sakonenak Markox-enak dira: "Sinetsi ta ukuzpena artu dukena, gaizkatuko da".

Eta ara nola, askok uste ez zuten Berpizkundera geratu zen.